

Ingurumen kimikako eta osasuneko goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Ingurumen-osasuna eta elikagaien segurtasuna.

- Ingurumen-osasuneko unitate bat kudeatzea.
- Herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea, uraren erabilerari eta kontsumoari lotuta.
- Herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea, hondakin solidoen ekoizpenarekin eta kudeaketarekin lotuta.
- Eraikitako inguruneari lotutako herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Biztanleriak elikagaiekin lotuta dituen osasun-arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Kutsadura atmosferikoarekin lotutako herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Bektoreen prebentzio eta kontrol integralerako eragiketa teknikoak egitea, osasun publikoaren testuinguruan, produktu kimiko bioziden eta fitosanitarioen erabilera kudeatzea barne.
- Pertsonen eta komunitatearen osasuna sustatzea, osasun publikoko hezkuntza-jardueren bidez.

Ingurumen-kudeaketa.

- Erakundearen Ingurumena Kudeatzeko Sistemari (IKS) buruzko arau-dokumentazioa kudeatzea.
- Erakundearen ingurumen-alderdiak dokumentatzea.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) abian jartzea eta mantentzea.
- Ingurumen-arriskuak ebaluatzea, istripuak prebenitzeko.

Organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuen kudeaketa.

- Organismo kaltegarriak kontrolatzeko plana ezartzea, abiapuntuko egoerara egokituta, eta plana nola gauzatzen den gainbegiratzea.

Airearen kutsadura kontrolatzea.

- Airearen kutsadura neurtzeko eta laginak hartzeko eragiketak egitea.

